



260. zenbakia

• Martxo 2026 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Hazten joatea Guztia urruntzea da. Hasier Larretxea. (Susa 2025)

Hazten joatea
hautsitako ispiluen
puskekin
ezkutaketan
jostatzea zen

barkamena
elkarri eman
gabeko
iratze erramu
baten
esporekin
aireratu
bitartean.

Non galdu zen
zure arrastoa,
hatsa?

Non trabatu
pauso arina,
hitza?

Desberdintasunaren
markak
zelatatzen gintuen.

Zauriek
ez zuten
baso-loreen
usainik.

Gorputz adarrak
luzatu
ahala,

lerrokatze oro
zen eskuetan
lehertu zitzaigun
hautzaroko
ilerik gabeko
panpina.

Garai hartan
ez genuen
adarkarrek
jostatzerik.



Hautatu



komunikazioa

3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera



pulunpe

amezti

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@ametz.eus

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkarte, Basaburuko Ahaztuak, Kolektiborik gabeko Kolektiboa, Ametza Kultur Elkarte, Patxi Irurzun eta Irati Sarrias Ripodas.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Lanzko ihoteak.
Egilea: Aingeru Eleta Urteaga.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira martxoaren 9an bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Herri lurrak*

07

Ingurumena. *Gaixotasunak eta biodibertsitatea*

08

Kronika. *Denok Bat jubilatuen elkarte*

10


Albisteak.

14

Elkarrizketa. *Nekane Garmendia*

17

Bertsoa. *Martin Azpiroz*



20

Zer ikusi. *amezti.eus-en*

22

Aspaldiko kontuak. *Ahuntzai kontu gehiago*

25

Ardo freskoa. *Taldea eta sektak*

26

Zer irakurri. *Ultzamako liburutegia*

28

Elkarrizketa. *Oihuka taldea*

30

Kultura. *Aingeru Eleta Urteaga argazki zuzendaria*

33

Kolaborazioa. *Cederna Garalur*

34

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. *Urtarrila*

Nola banatzen eta kudeatzen dira herri lurrak gurean?

Habelarte Mendialdeko Baserritarren elkarteak herri lurren aprobetxamenduari, kudeaketari eta banaketari lotutako proposamena argitaratu zuen joan zen martxoan, eta eskualde zabaleko udal eta kontzejuetan aurkeztzen ari dira pixkanaka. Imotz, Basaburua eta Atetz elkarteak hartzen duen eskualde barruan egonik, udalerrri horietako zenbait kontzejutan herri lurrei lotuta dituzten neurriak aztertutako erreportajearen

Komunalak edo herri lurrak ondasun publikoak dira, eta Nafarroan 1990. urteko 6/1990 Foru Legearen oinarrituta dago horien araudia. Herri eta Kontzeju batetik bestera, ordea, funtzionamendu eta erabilera desberdinak daude, eta hori aztertzen ari dira azken urteetan Habelarteko kideak. "Azken urteetan, Mendialdeko hainbat herritan herri lurretako larreen aprobetxamenduan oinarrituta, NPBko -Nekazaritza Politika Bateratua, PAC delakoa- dirulaguntzak kobratu ahal izateko lur hektareak banatzerakoan arazoak sortu dira, hektarea eskaerak dagoen larre hektarea kopurua gairatzen duelako", azaldu

dute argitaratutako txostenean.

1990eko legedia zaharkitua gelditu dela uste dute elkarteko kideek, izan ere, egungo testuingurura egokitzeko moldaketarik ez da egin denbora guzti honetan. "Herri lurren kudeaketa arautzen duen legeak 1986koa du oinarritzat, eta argitu beharra dago garai horretako testuinguruak eta gaurkoak ez dutela deus ikustekorik: 1986an Nafarroan biztanleria aktiboaren %28 inguru nekazaria zen, eta egun, ez da iristen %3 izatera ere", diote oharrean.

Era berean, gogorarazi dute jatorrizko helburua ondasun komunaren izae-

ra sozialaren eta aprobetxamendu egokiaren arteko oreka bilatzea zela. Zenbait tokitan azken aldian banaketa egiterakoan sortu diren arazo eta eztabaiden aurrean ondu du proposamen bateratua taldeak. Imotz, Basaburua eta Atetz ez ezik, elkarteak Leitza, Areso, Larraun, Araitz-Betelu, Goizueta eta Arano ere hartzen ditu. Gure eskualdean herri lurren aprobetxamendu eta kudeaketari begira, hiru kontzejutako esperientziak jaso ditugu: Muskizkoa Imotzen, Beruetea Basaburuan eta Beuntzakoa Atetzen. Erreportaje bukaeran, berriaz, Habelarteren proposameneko puntu garrantzitsuenak azalduko ditugu.

Muskiz: komunalen %85 Oskozko kooperatibarentzat

Virginia Sarasa Muskizko herri-tarrarekin eta kontzejuburu izandakoarekin hitz egin dugu Imotzko herri horretan herri lurrak nola banatzen dituzten jakiteko. "Historikoki 10 urtetarako enkantean ateratzen ziren Muskizko herri lurrak, herrikoek badute zati bat edukitzeko eskubidea, baina zatirik handiena enkantera ateratzen da, eta gaur egun kontzejuko komunalen %85 inguru Oskozko kooperatibak erabiltzen du", azaldu du. Gutxienez azken 20 urteetan horrela izan dela dio, eta azken aldietan haiek bakarrik aurkeztu dira enkantera.

Printzipioz, enkantean lehentasuna

errentan gehien ordaintzeko presuntasuna duenak du, eta Sarasak nabarmentzen duenez, ekoizle txikiak edo estentsiboan ari di-

renak zaila dute Oskozko kooperatiba bezalako etxalde handien aurrean. "Haiek lortzen dituzte alor gehienak errenta baten truk,



Muskizko herri lurretako alor baten sarrera ▲



baina ez zaie eskatzen sortzen dituzten kalteengatik ezer". Izan ere, kontzejuko pistak ez daude etxaldeak erabiltzen dituen traktore pisutsuentzako prestatuta, eta horietan eta hesituetan kalte handiak eragiten dituztela salatu du herritarrek. "Zer gertatzen da? Maiztasunez gertatzen diren kalte horiek, baita pisten itxiturak ere, kontzejuak ordaindu behar dituela", gaineratu du. Gainera, herri lurak minda kopuru handiekin kutsatzen egotea ere kontuan izateko modukoa litzateke, berez.

Muskizko herri lurretatik NPBko laguntzak kobratzen ditu Oskozko kooperatibak, eta lur horiei dago-

kion zatiaren zenbatekoa jakin ezin den arren, kontuan izateko modukoa da 2024an, guztira, 214.285,15 euro jaso zituela kooperatibak Europako dirulaguntzetatik.

Muskiztarrek dioenez, herri lurren banaketa egiteko ordenantzaren pleguetan orain arte ez da horien zaintzari eta mantenimenduari begirako araurik zehaztuta egon, baina ordenantza berritzen ari diren honetan, zenbait neurri gehitzea da asmoa. Hesituei eta horien konponketei lotutakoak dira batzuk, baina baita herri lurren erabileraren epealdiari begirakoa ere, 10 urtetik 8 urtera jaistea baita ideia.

Herri lurren zati txiki bat, %15 ingu-

ru, herriko abeltzain txikiek erabiltzen dute. "Batek zaldiak ditu, beste batek ardiak, guztiz beste eredu bateko ekoizpenak dira, inguruarekin askoz errespetuzkokoak, itxiturak lurra zaintzen dute", gehitu du. Imozko inguruko beste kontzejuren batean, Urritzan esaterako, herri lurak batez ere eredu estentsiboko nekazariak aprobetxatzen dituztela azaldu du. "Askok kalte txikiagoak eragiten dituzte horiek, eta datuak ikusita, ordaintzen dutena benetan ez da kooperatibaren kopurutik asko jaisten. Kontua da hemen beti egon dela sinesmen hori, kooperatibak adina inork ez duela ordainduko", amaitu du.

Beruete: herritarrek lehentasuna, banaketa urtero

Iñaki Lopez Berueteako alkatea- rekin hitz egin dugu Basaburuko herri horretan herri lurren banaketa eta aprobetxamendua nola egiten duten ezagutzeko. Muskizten ez bezala, Berueten urtero egiten dute banaketa, eta aurreko urtean ganaduzale bakoitzak bota duen azienda kopuruaren arabera egiten dute banaketa. "Hasteko, herri lurak erabili ahal izateko herrian egon beharra dute enpardonatuta eta hemen bizi beharra da, ordenantzak dio gutxienez 9 hilabetez herrian bizi beharra duela pertsonak eskubide hori izateko", azaldu du.

Herri lurretara botatzen den ganadu kopuruari dagokionez, ez dute inolako mugarik jarrita, eta hektareak portzentajeka banatzen dituzte, buru kopuruaren arabera. "Mendian aurreko X azienda buru egon badira, datorren urtean horren arabera egiten da banaketa. Batek hamar behi eramaten badi-

tu, dagokion lur zati proportzionala erabiltzeko aukera izanen du", dio. Garai batean herri lurak soberan izaten ziren eta ez zuten banaketarik egin beahr izaten, baina azken urteetan horrela egiten dute.

Trukean, hainbat ekarpen egiten dituzte ganaduzaleek herriarentzat: alde batetik, hektarea bakoitza 20



▲ Berueteako lursailak, herria behean. Iturria, aitonak.blog

euro kobratzen diete ganaduzaleei, eta diru hori mendia ongarrizko erabiltzen dute. Bestetik, 2.000 euroko errenta ere ordaintzen diote guztira ganaduzaleek kontzejuari, proportzionaliki. Eta, pastizaletako mantenimendu gastuak ere haiei kobratzen zaizkie, hau ere proportzionaliki. Auzolanei dagokionez, herri guztiari egiten diote mantenimendu lanetara joateko deialdia. "Herri guztia deitzen da auzolanetara, baina normalean aziendak dituztenak joaten dira, eta lan hori ordaindu egiten zaie kontzejutik", adierazi du. Pastizaletako gastuak, dena den, ganaduzaleek ordaintzen dituzte.

Herri lurren banaketa egiterakoan ez dute kontuan izaten hartzailea lehen sektoretik bizi den edo ez. "Hori bai, herri lurretatik NPB jasotzen dutenen artean egiten da ordainketa nagusia, erabileragatik bakarra mendiko gastuen zatia soilik ordaintzen dute", gehitu du.

Beuntza: herriko abeltzainen artean, zozketaz



▲ Beuntza. Argazkiaren egilea, IKANDU (wikiloc)

Beuntza da Atetzen herri lur gehien dituen kontzejua, eta Mikel Garijo bertako alkatearekin hitz egin dugu nola egiten duten jakiteko. Azaldu duenez, Beuntzan dute ganadu kopuru handiena Atetzen, guztira hiru abeltzain daude: bata behiekin, beste bat behi eta ardiekin, eta hirugarrena ardi eta behorrekin. "Haiek erabiltzen dituzte Beuntzako lur komunalak, eta banaketa egiteko zozketa egiten da", dio. Urteak daramatzate horrela funtzionatzen.

Gainera, herri lurrez gain, komunalean banatzen diren herriko hiru pabilioi ere badituzte. "50-60. hamarkadan gobernuako enpresa

publiko batetik behi esne ustiatzea egin zuten, esperimentaziorako, eta eraiki zituen nabeak orain herri lurretan sartuak daude", azaldu du. Horrela, gaur egun herri lurak erabiltzen dituzten abeltzainek kontzejuaren pabilioi bana erabiltzeko aukera ere badute. Urteko errenta finko bat ordaintzen dute abeltzainek herri lurren eta pabilioien erabileragatik, eta horri KPla-Kontsumorako Prezioen Indizea, gaztelaraz IPC- gehitzen diote.

"Orain arte ez da abeltzain berririk sartu, egoera hori sortuko balitz birplanteatu egin beharko litzateke nola egin banaketa eta kudeaketa", adierazi du.

Habelarteren proposamena

Larreen aprobetxamenduan eta hektarea banaketan zenbait helburu eta irizpide zehaztu behar liratekeela proposatu du Habelartek. Ondokoak lirateke helburu nagusiak, elkartearen iritziz:

- Nekazari unitate familiarren eta nekazari elkarten biziraupena.
- Gazteak eta emakumeak sektorean sartzea.
- Baserritik duintasunez bizi ahal izateko errenta duinak lortzen laguntzea.
- Tokiko elikadura sistema indartzen laguntzea.
- Elikadura osasungarria bermatzea.
- Nekazaritza estentsiboa bultzatzea.
- Lurra eta ingurumena zaintzea, maneu egoki baten bidez.

Helburu horiek lortzerako bidean, hainbat tresna eta neurri zuzen ere planteatu ditu baserritarren elkartek:

- Herri lurren aprobetxamendu arautu bat idaztea.
- Lehen instalazioetarako lur erre-serba bat finkatzea.
- Herri lurak ekologikoan izendatzea.
- Kudeaketa egoki bat bultzatzea, azienda bakoitzak egiten duen ekarpenaren arabera, eta beharrezko azpiegiturak jarritz eta lanak eginez: itxitura adostuak, askak, desbrozeak eta abar.
- Egungo errealitateari egokitutako



Habelarte eratzeko batzarra ▲

udal ordenantzak egitea.

- Administrazio, sindikatu, nekazari elkarte eta ingurumenaren eta elikadura burujabetzaren alde diharduten herri eragileen arteko elkarlana.

Bukatzeke, herri lurren hektarea banaketa egitean hartu beharreko irizpideak ere proposatu dituzte. Besteak beste, hektarea banaketa orekatua egiteko topeak jartzea, hektarea nahikoa ez dagoenean lehentasunak ezartzea (lehen instalazioak lehenestea edo erabiltzaileen errenta kontuan izatea adibidez), herrian erroldatuta egotea eta bertan bizitzea eta herri lurak garbitzeko eta auzolanetan parte hartzeko betebeharra izatea.



Habelarteren dokumentua osorik ikusteko



Gizakion gaixotasun berriei aurre egiteko botikarik onena

Denge, chikungunya, zika, Niloko sukarra... gurean duela gutxi arte ezezagunak ziren izen xelebrea duten gaitz berri horiek. Hilabete honetako ingurumen tartean pixkanaka zabaltzen ari diren eritasun berriak izan ditu hizpide losu Alfaro biologo etsaindarrak, baita horiei aurre egiteko biodibertsitateak eta ingurumen aberats batek jokatzen duen paper garrantzitsua

Duela gutxi arte urruneko herrialdeetako gaixotasunak ziren sarre-ran aipatutako horiek guztiak, baina badira zenbait urte Europako herrialdeetan ere kasuak hedatzen hasi zirela. Beste herrialde batzuk bisitatu dituzten turista eta bidaia-riek ekartzen dituzte batzuetan gaixotasun horiek, baina azken aldian klima aldaketak gaixotasun horiek hemen Bertan sortzeko baldintzak hobetu ditu. "Klima geroz eta epelagoa dugu, zonalde batzuetan hezetasuna ere handiagoa da...", azaldu du biologoak.

Gaurko mundu globalizatuan, pertsonak ez ezik, merkantziek ere bidaia luzeak egiten dituzte etengabe: autoak, oihalak, elikagaiak... "Hemen ezezaguna zen tigre eltxoa, esaterako, duela hamarkada batzuk iritsi zen Europara, gurpilak zekartzan itsasontzietan. Gurpil horietan ur putzuren bat egonen zen, eta hor egonen ziren eltxoak edo arrautzak". Dengea, chikungunya nahiz zika gaixotasunak eltxo horien ziztada bidez zabaltzen dira. "Eltxo horrek gaixotasunen bat duen norbait ziztatzen badute, haien odola xurgatu eta beste gizakiak ziztatzean gaixotasuna zablatzen dute", dio.

Biodibertsitatearen onurak, gizakien osasunari (ere) begiratuta

Baina, gure inguruan, naturan, badi-tugu espezie inbaditzaile horiei aurre egiteko moduko lagunak. "Enarek, adibidez, eltxo asko jaten dituzte, bi-



▲ Enara txitak elikatzen

kote bakar batek ehunka eta ehunka eltxo harrapatzen dituzte txitoak elikatzeko", azaldu du Alfaro. Zenbat eta eltxo gutxiago inguruan, aipatu ditugun gaixotasun horiek zabaltzeko aukerak ere murriztu egiten direla adierazi du. "Horrelako adibideekin argi ikusten da biodibertsitatea ez dela zerbait abstraktua, gizakion osasunerako eta gure babeserako ere modu zuzenean dela onuragarria", gehitu du.

Ohiko enara bezala, gure eskualdean oso ohikoa den sorbeltza ere intsektu-jale amorratua da. "Enararen antzekoa da hegazti hau ere, beltz-beltza", deskribatu du. Eta, enara azpizuriak ere funtzio bera betetzen duela azaldu du. "Hiru hegazti horiek gure herrietan, etxeetan, teilatuetan eta ukuiluetan bizi dira, eta milaka eta milaka eltxo jaten dituzte egunero". Baina, zein da ara-

zoa? Bada, biodibertsitatearen gale-rarekin, gure babeserako lana egiten duten hegazti espezie horietako asko ere gutxitzen ari direla. "Sorbeltza-ren kasuan galera oso nabarmena da, estatu mailan populazioaren %40 galdu baitu", azaldu du.

Tira, albiste onik ere bada: enara azpizuriaren kasuan, populazioak asko igo dira, bereziki estatuko iparraldean, eta beraz, gure zonaldean. "Estatu mailan %5 inguru igo da kopurua, baina gure inguruan %86 ingurukoa izan da hazkuntza", adierazi du. Argi dago ingurumena eta biodibertsitatea zaintzeak gizakion osasuna zaintzeko ere balio duela, eta beraz, gure herri, mendi, baso nahiz larreetan ditugun praktikek etorkizunean etor daitezkeen gaixotasunak eta kalteak kontrolpean edukitzeko ere balio dezaketela.

Sagardotegia, ordezkarien bilera eta Malerreka ibilaldia

Oraingo kronikan, otsailean egindakoaren berri emanen dizuegu: Sagardotegira egin genuen buelta, ordezkariekin izan genuen bilera eta Iturenen eta Saldiasen egindako ibilbideak, hain zuzen

Otsailaren 12an egin genuen sagardotegiko txangoa, aurtengoan Etxalar herria bisitatuz. Goizetik bi autobus hartuta abiatu ginen Etxalarrera, hango parajeak ikusteko asmoarekin. Besteetan bezala bi talde egin ziren, batek euskaraz jaso zituen gidak emandako azalpenak, eta besteak erdaraz. Herriari buelta eman genion beren historiako zatiak entzunez. Aspaldiko etxeak, beren zurezko egiturarekin, Iñarreta etxea eta bere aurrealdean dagoen gurutzea, indianoak egindako palazio modukoak, Aznarren etxea eta udaletxe zaharra, bere karrapean daukan haziendak pisatzeko pisuarekin.

Eliza eta bere aurrealdeko hilerriko estelak ere ikusi genituen. Plaza nagusia eta frontoia izan ziren ikusten azkenak, bigarren taldeari txanda pasa aurretik. Ezezaguna genuenez, oso interesgarria iruditu zitzaigun herria da Etxalar. Borda asko dituela esan zigun gidak, eta usategia ere badute. Horiek, ordea, beste baterako utzi genituen.

Bi taldeak herria ikusi ondoren Lesaka aldera abiatu ginen, Linddurren-bordako sagardotegira. Iaz oso gustura egon ginenez, aurtun errepikatzea erabaki genuen.

Oraindik Lesakako karriken konponketak amaitu ez dituztenez, Laminaciones lantegitik pasa behar izan genuen bi autobusetan sagardotegira joateko.

Gu iristerako dena prest zeukaten, eta oso gutxi kostatu zitzaigun sagar-



Elizaren aurrealdean estelari buruzko agerpenak entzuten ▲

dote gi roan murgiltzea eta 'txotx' entzutean bertsolari izenak dituzten kupeletara hurbiltzea.

Giro ezin hobean egin genuen bazkaria eta gerokoak, beste behin ere, lagun artean egoteak zer nolako bizi poza ematen duen jabetuz. Ilunabarrean autobusak hartu eta etxera buelta egin genuen. Ea hurrengoan

hain ongi pasatzen dugun! Ziur aski ala izanen da udaberriko festa ere!

Ordezkarien batzordea

Otsailaren 24an ordezkarien batzordea egin zen eta urtero bezala, beren eginkizunaz hitz egiteaz gain bazkideen egoeraz mintzatu genuen, eta zenbaki hauek agertu ziren:



Plaza nagusian gida arretaz entzuten ▲



Zubigainean eguzkitan ▲



Gorostieta ▲

2026ko urtarrileko datuen arabera, Denok Bat elkarteak 370 bazkide zituen, horietatik 58 ohorezkoak(85 urtetik gorakoak). Horietatik 219 emakumezkoak dira, eta 151 gizonzkoak. Zenbaki egonkorak dira, azken urte hauetan mantendu egin dira, baina pozez hartu zen 27 bazkide berri egin direla jakitea.

Elkartearen eginkizunak aurrera eramateko 24 ordezkari daude eta zuzendaritzan 11 bazkide. Batzorde ondoren otamena hartu genuen ben-

tako ostatuan eta udaberriko festan pentsatuz etxeratu ginen.

Iturengo eta Saldiasako ibilaldiak

Otsaileko "ibilaldiak" Ituren inguruan eta Saldiasako mendietan izan ziren, biak otsailaren 26an. Lehenengoa paseo arinagoa izan zen, eta bigarrena mendi buelta.

Paseoa Doneztebe ondoko Oteitzatik abiatu zen Ituren aldera, Latsaga zurbia eta San Pedro eliza ikustera joan ziren. Nahiz nahiko zelaitsua izan, ia

10 kilometro egin zituzten buelta osoa emateko.

Mendi buelta egin zuen taldeak, berriaz, Saldiasatik Gorostieta gainerainoko joan-etorria egin zuen, Isasti eta Lertza zapalduz. Bost orduko bidea, 13 kilometro eta ia 600 metroko goranzko desnibelarekin.

Buelta osoa egin hondoren eta bi taldeak elkartu eta Saldiasako ostatuan bazkaria egin zuten, ustez ongi merezitakoa.

Hurrengoan udaberriko festari eta bertan omendutakoei buruz izanena da kronika eta Etxauri aldean egingen diren ibilaldien berri ere emanen dizuegu. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Bazkal ondorengo argazkia ▲



Denok Bat

Denok Bat
Jubilatu Elkartea



Berdintasun eta euskara zerbitzuek Emakume* izateko 60 modu euskarazko liburuen gida kaleratu du

Martxoaren 8an Emakumearen Eguna dela eta, Sakanako, Baztango, Bortziriteako, Malerrekako, Larraun aldeko, Leitza aldeko eta Ultzama aldeko berdintasun eta euskara zerbitzuek *Emakume* izateko 60 modu* izeneko irakurketa-gida kaleratu dute.

Bertan emakumeak protagonista diren liburuak agertzen dira, guztiak euskaraz. Gidan liburu berriak zein klasikoak daude, eta adinaren arabera daude sailkatuta. Generoari dagokonez, era guztietako liburuak daude. Gidaren irudiak Anne Baskaranenak dira.

Xedea da berdintasunari lotutako baloreak zabaltzea euskarazko kalitatezko liburuen bidez. Hautatutako

liburuek hausnarketarako parada eman nahi diete adin guztietako irakurleei. Horretaz gain, emakumeek bizi dituzten hainbat errealitate ezagutzeko aukera eskaini nahi du. Horiek horrela, genero berdintasunera eramango gaituen bidean, proposatutako zerrenda lagungarri izatea nahi dute.

2.000 gida banatu dira doan aipatutako eremuetako toki publikoetan, baita Ultzamaldean ere: ikastetxeetan, liburutegietan, kultur etxeetan, liburu dendetan, amezti.eus webgunean gainera, PDF-an aurkituko duzue.

Zainketak Ultzamaldean dokumental laburra

Otsailaren 26an, ostegunarekin, aurkeztu da, 18:00etan, Larraintzarko Zentro Zibikoan. 13 minutuko laburmetraia Ultzamaldean zaintza lanetan ari diren langileek eta haien zerbitzua jasotzen duten herritarrek osatzen dute. 2025eko Zainketen Aldeko Itunaren baitan sortutako lana da eta helburua, zaintza lanen garrantzia eta langileen lana aitortzea da, are gehiago landa eremuko lurraldeetan non herritarren batz besteko adina geroz eta altuagoa da.

Larraintzarko ekitaldia lehenengo aurkezpena izanen da baina datozen hilabeteetan gainontzeko bailaretara eramane da dokumentala.

Dokumentala Isa Saez eskualdean bizi den zinemagileak osatu du.



Zaintza Ultzamaldean dokumentalaren aurkezpenean



Gurseko 'euskaldunen kontzentrazio esparrura' bidaia antolatu du Basaburuko Ahaztuak

Basaburuko Ahaztuak Elkartetik gure historiaren zati bat ezagutzeko lanarekin jarraitzen dugu, nahiz eta urteetan gezurrak, isiluneak eta beldurrak nagusitu diren. Horregatik, Gurseko kontzentrazio-esparrura bidaia antolatu dugu (Zuberoatik kilometro gutxira), lehen pertsonan kontu diezaguten zer esan nahi zuen horrek.

Gurseko esparrua, "euskaldunen eremua" bezala ere ezaguna, Bigarren Mundu Gerran Frantziako internamendu esparru nagusietako bat izan zen. Milaka errefuxiatu bidali zituzten hara, horien artean Gerra Zibiletik ihesi zihoazen euskal herritar asko eta haien artean gure bailaretako hainbat herritar. Harrera-gune bat izatea nahi zen, baina giltzapean, sufrimenduaren eta heriotzaren ataria bilakatu zen.

Josu Txuekak, *Gurs, el campo Vasco* liburuaren egileak esaten digun bezala, ez dago soberan gure historiaren zati hau ezagutzea eta gogoratzea. Kontinente europarra, Melillatik Calaisera edo Dover-era, Kiosetik Hendaiara, errefuxiatu-esparruz eta Atxikitze Administrazioaren Zentroz, espetxe-ontziz, nazioarteko mugetako poliziaz (Frontex) beteta dago. 1939-1940koak bezalako eufemismoekin, errefuxiatuei eta migratzaileei giza eskubideak ukatzeko politikak estaltzen dituztenak, zirkulazio askea eragotziz, atxilotuz, deportatuz edo Mediterraneoko Mare Mortuumen, Egeon, Ipar Itsa-

soan... hiltzen utziz. 1939ko lotsa-eremuek, zoritxarrez, heriotza eta ignominia oihartzuna izaten jarraitzen dute 2026ko Europan.


Bidaia etortzera animatzen zaituztegu, oroitzapen eta omenaldi zirraragarri honen partaide izatera. Datozen asteetan eta hilabeteetan emanen dugu informazio guztia.



Basaburuko Ahaztuak



- **PSIKOTERAPIA**
- **ORIENTAZIO PSIKOLOGIKOA**
- **ARAZOAK KONPONTZERA**
- BIDERATUTAKO TERAPIA**
- LABUR ETA ESTRATEGIKOA**



- **PSICOTERAPIA**
- **ORIENTACIÓN PSICOLÓGICA**
- **TERAPIA BREVE Y ESTRATÉGICA**
- ENFOCADA A SOLUCIÓN DE**
- PROBLEMAS**

iuzkipisiko@hotmail.com

Ane Buitrón (N-02107)

637 18 60 27



Sororitatea denengana iristen ez denean



Aulkiak ohiko modu berean jartzen dira, bilerak ohiko modu berean iragartzen dira, kartelak ohiko paretan jartzen dira. Dena irekia dirudi. Eta, hala ere, badira pixkanaka egoteari uzten dioten emakumeak. Ez nahi ez dutelako, baizik eta jada non eseri ez dakitelako.

Bailaraetan, bizitza komunitatean eraikitzen den tokietan, bazterketak ez dira abstraktuak. Ez dira eztabaida teorikoak, ezta titular handiak ere. Isiluneak dira. Talde txikietan hartutako erabakiak dira. Hitzak baino astunagoak diren begiradak. Eta hori feminista gisa izendatzen diren espazioetan gertatzen denean, kolpeak eragiten duen mina bikoitza da.

Barrutik idazten dut, konpromisotik, feminismoak tresna ezinbestekoa izaten jarraitzen duela sinetsita, hemen ere bai. Hain justu horregatik, zintzotasunez begiratzea merezi du. Feminismoa inklusiorako sortu zen, sostengatzeko, arrakalak baino ez zeuden tokietan bideak irekitzeko. Gure herrietan, gainera, babesleku izan beharko luke: sare sendo bat, dena zailagoa den lekuetan, bakardadeak ere emakume izena duen tokietan. Horregatik da hain zaila ulertzea espazio batzuek borrokatu nahi zuten horren antza hartzen hasten direnean.

Guztiok kontuan ez hartzeaz ari gara. Zaintzen dutenentzat ezinezkoak diren bilerez. Azaltzen ez diren erabakiez. Isilka ateak ixten dituen "hau jada hitz eginda dago" horietaz. Emakume konprometituak nolakoa izan behar duen irudi oso zehatz batez: eskuragarri, lerrokatua, pitzadurarik eta galderarik gabea.

Egokitzen ez direnak pixkanaka desagertzen hasten dira. Amak. Langileak. Auzokide berriak. Emakume atzeritarrak, adineko emakumeak. Bestela pentsatzen duten emakumeak. Hizkuntza egokia ez dutenak edo ikasteko denborarik ez dutenak. Zalantza egiten duten emakumeak, besterik gabe.

Eta zalantza egitea, espazio batzuetan, mehatxutzat bizi da. Herrietan, honek ondorio errealak ditu. Ez da barruko ondoeza bakarrik. Mahai batean ahots bat galtzea da, iritziak soberan ez diren leku batean. Asmo txarrik gabe ere, espazio feminista batzuek hierarkia ikusezinak erreproduzitzen dituzte: zalantzan jartzen ez diren lidergoak, beste batzuek baino gehiago pisatzen duten ahotsak, gero eutsi behar dituztenengandik urrun hartzen diren erabakiak. Ez da beti borondate kontua, berrikusten ez diren inertziak baizik.



Arazoa ez da gatazka. Desadostasuna osasuntsua da. Arazoa gatazka estaltzen denean eta desadostasuna isiltasunarekin zigortzen denean sortzen da. Batasuna obedientziarekin nahasten denean. Aniztasuna diskurtsoetan ospatzen denean, baina praktikan deserosoa denean.

Emakume askok ez dute haserre alde egiten. Nekatuta egiten dute alde. Nahikoa ez direla sentitzen dutelako, ondo egiten ez dutelako sentsazioarekin, idatzi gabeko arauak ulertzen ez dituztelako. Eta horrek, bailara batean, dirudiena baino gehiago pisatzen du.

Testu hau hausnarketa kolektibo bat irekitzeko sortu da. Izan ere, herrietan behar duguna feminismo zain-tzaileak dira, ez higatzen dutenak. Landa eremuko erritmoak, bizitza konplexuak eta kontraesanak ulertzen dituzten feminismoak. Perfektuak baino, gizatiarragoak.


Integratzea ez da berdin pentsatzea. Ez da guztietan egotea. Ez da beti baietz esatea. Integratzea lekua uztea da. Benetan entzutea. Erabakiak azaltzea. Konpromisoak forma asko dituela ulertzea, eta horietako bat bera ere ez dela txikiagoa.

Agian, lasai eta defentsarik gabe galdera hau egiteko garaia da: nor ari ote gara nahi gabe kanpoan uzten?

Bailara batean, erantzunak badu garrantzia. Hemen ez garelako kontzeptuak. Auzokideak gara. Eta feminismoak indar bizia izaten jarraitu nahi badu, horretara itzuli behar du: leihoak zabalik dituen etxe bat izatera, gero eta estuagoa den zirkulu bat izan beharrean.



Kolektiborik gabeko Kolektiboa



Rural Bizi

RED RURAL DE NAVARRA
NAFARROAKO LANDA SAREA

LANDA EREMUA LOTZEN DUEN SAREA

Etorkizuna landa eremukoa da



@ruralbizi

RURALBIZI.NAVARRA.ES



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua





“Autoezagutzarako erreminta gisa ulertzen dut nik tarota”

Gaztea zenean hasi zen Gelbentzuko Nekane Garmendia tarotaren munduan murgiltzen, eta geroztik beti egon da presente bere bizitzan. Dioenez, ikasketa prozesua ez da inoiz amaitzen. Ordiziarra jaiotzez, 17 urte daramatza Odietan bizitzen, eta 30 urte baino gehiago Nafarroan. Tarotaz, reiki-az nahiz astrologiaz aritu gara berarekin, baina baita politikagintzaz eta bizitzako gorabeheraz ere

Gipuzkoarra zara jaiotzez, baina urte asko daramatzazu Nafarroan. Nondik nora ibili zara gure eskualdera iritsi baino lehen?

Jaiotzez ordiziarra naiz, baina 19 urte nituela Donostiara joan nintzen eta urte asko egin nituen han. Nafarroan, lehenbizi Dicastillon bizi izan nintzen, lan kontuengatik mugitu ginen hara. Handik Legariara joan ginen, herriko ostatua hartu genuen. Gero, Iruñera hurbiltzeko asmoz, Eritze Itzara lekualdatu ginen, hango Apaizetxean bizi izan ginen. Begira ze kasualitateak, etxe hau ere,

“ **Telebistako tarot horiek kalte handia egin dutela iruditzen zait** ”

Gelbentzukoa, Apaizetxea da! Hor tartean, Zilbetin ere bizi izan ginen, Erro inguruan. Duela 17 urte iritsi nintzen Gelbentzura, etxe honetara, eta geroztik hemen nago.

Gurera iritsi eta ez askora, Ultzamako udalean zinegotzi ere izan zinen, ezta?

Bai, 2011n Bildu alderdia sortu zenean izan nintzen zinegotzi. Gogoan dut Iruñeko udalean zain egon girela, alderdia legezkatzat ematen zuten edo ez jakiteko. Urduri geunden, eta gauerdian aldean eman zuten azkenean baiezkoa. Ospatu genuen, eta biharamunean ekin genion kanpainari. Ultzamako herritar bat etorri zen nigana ea animatuko nintzen galdetuz, eta esan nion ni zerrenda betetzeko eta apaingarri



Gelbentzun eskaintzen du tarot zerbitzua Garmendiak ▲



▲ Kartek, kokapenaren arabera, esanahi desberdina hartu dezaketela dio

“ Tarotaren munduan ere baditugu etikako printzipioak ”

dezakete. Alejandro Jodorowsky eta Carl Jung segitzen ditut tarotaren alorrean.

gisa ezetz, sartzekotan lan egiteko sartuko nintzela. Agrupacion Ultzama taldeari irabazteko puntuan egon ginen lehenbizikoz, oso diferentzia txikia atera zuten. Oposizio gogorra izan ginen, eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakari atera nintzen ni. Amorrur handia zuten esparru hori galdu zutelako eta gogor egin zidaten, eta egia da guk esperientziarik ere ez geneukala. Gogorra izan zen, ardura handia baitzen.

Nola bukatu zen udaleko eta mankomunitateko fase hori?

Bi urte eta erdi inguru egin ondoren, dimititzea erabaki nuen. Berez, gogorra ari zen izaten, eta taldean independente nintzen, ez naiz inoiz alderdi batean argi kokatu. Niretzat, zenbait agindu Iruñetik etortzea ez zen egokia, gustuko ez nituen beste gauza batzuk ere egon ziren tartean, eta horrela erabaki nuen dimititzea. Bolada hori ere oso gogorra izan zen. Udalean dimitituta, mankomunitatea ere utzi behar izan nuen.

Eta tarotaren mundura, nola iritsi zinen?

Urte asko da tarotarekin ari naizela, Donostian bizi nintzenerako egiten nuen, baina orduan lagunarteko zerbaite zen. Nire kasa formatu naiz

urte askoan, tarotari lotutako liburuak beti egon dira etxean. Lan politikoa eta tarota, bi gauzak egiten nituen garai berean. Baina, osasun arazoengatik 'erabateko menpekotasuna' eman zidatenean nire bizitzak 360º-ko bira eman zuen: banandu egin nintzen, ezin nuen lanik egin, herriz eta ethez aldatu nintzen... lehen hilabeteak gogorrak izan ziren, baina halako batean pentsatu nuen gauzak beste modu batean ikusten hasi beharra nuela. Politika aktiboan sartu nintzen berriz, eta Bartzelonara joan nintzen taroteko formazio bat egitera. Reikiari lotutako beste formazio bat ere egin nuen orduan.

Tarota eta reikia aipatu dituzu, zer da horietako bakoitza?

Tira, bi gauzek lotura izan dezakete, nik batzuekin reikia egiten dut tarotarekin ere lagunduta, bi gauzak uztartuz. Tartota, berez, kartak botatzeari, baina karta bakoitzak interpretazio asko izan ditzake, segun eta zertaz ari garen. Karta bakar batek gauza asko esan ditzake, eta ikusi behar da inguruko beste kartekin zein lotura duen. Karta batzuk atera daitezke kokapen jakin batekin eta horrek zentzu bat du, karta berak beste kokapen batekin ateratzen badira, guztiz esanahi desberdina izan

Telebistan tarota etorkizuna iragartzeko erabiltzen zuten, nola ikusten duzu hori?

Kalte handia egin duela iruditzen zait, jendeak uste baitu hori dela benetan tarota, etorkizuna iragaritzea... guk diogu telebistan egiten duten hori tarotaren prostituzioa dela, baina, zoritxarrez, jende gehienak hori du buruan. Nik tarota autoezagutzarako erreminta gisa ulertzen dut, ez dut esaten 'garbi ikusten dut hau gertatuko dela' edo 'hau egin beharra duzu'... tarotaren munduan ere baditugu etikako printzipioak.

Eta reikia, zer da zehazki?

Reikia energiak dira. Normalki, pertsona ohatilan etzaten da, eta zazpi puntu edo txakra energetikoak lantzen ditugu. Tira, berez askoz txakra gehiago daude, baina zazpi horiek dira garrantzitsuenak. Nik, txakra horietako bakoitzean kolore desberdinetako harriak jartzen ditut: beheko txakra gorria da, zilborraren azpikoa laranja, zilbor gainekoa horia, bihotzekoa berdea... harriak horrela kokatu eta penduluarekin galdetzen dut puntu bakoitza nola dagoen, energia gutxien edo zentro okerragoak non dauden. Behar gehien duen tokietatik hasten naiz puntu bakoitza lantzen. Sinbologia



asko dago reikian, eta sinbolo bakoitzak ibilbide bat du, nik eskuekin egiten dut horiek barruan sartzeko, edo mingainarekin aho-sabaian. Horren ondoren, energia txarrak baldin badaude, kendu egiten ditut, astindu. Distantziatik ere egin daiteke reikia, pertsona aurrean egon gabe, baina horretarako ezinbestekoa da bere baimena izatea edo berak eskatzea.

Mineralak ere erabiltzen dituzu, ezta?

Bai, mineraletan oinarritzkoa ikasi nuen: reikian txakretan kokatzen ditudan koloretako mineralena hori da, eta nik beti darabiltzak mineralak zintzilik, indar asko baitute. Mineral bakoitzak gauza askotarako balio dezake. Adibidez, amatista mineralak energia txarrak xurgatzen ditu. Jendeak askotan esaten du ez duela energiari sentitzen, baina mundu guztiak sentitzen ditu, kontua da arretarik ez dela jartzen batzuetan. Askotan gertatzen da, agian bazoaz etxe batera eta deseroso zaude, ez dakizu zergatik baina bertan ez zara ongi sentitzen. Bada, jartzen duzu



Tarot eta reiki zerbitzuak, etxean edo telefonoz

Tarot eta reiki zerbitzuak eskaintzen ditu Garmendiak Gelbentzuko bere etxean, baina telefonoz ere egiten du tarota, eta reikia distantziara ere bai. “Tarota asko egiten dut telefonoz, atera diren karten argakia bidaltzen diet, eta kontsulta egiten dugu”, dio. Tarot formazioak ere antolatu izan ditu, hiruzpalau pertsonako taldeentzat. “Tarot ikastaroak egiten nituen eta jende asko animatzen zen, baina osasun arazo larri bat izan nuen eta geroztik ez dut berrartu”, dio. Aurrera begira, formazioekin segitzea da bere asmoa, baina orain arte erabiltzen zuen manuala berritu nahi duela dio. “Orain iruditzen zait manual hori txiki gelditu dela, gehiago sakondu nahi nuke, eta horretarako denbora behar dut”.

amatista mineral hau, eta egun batzuetara itzulita, mineral hori belztua egonen da, ilundu egiten da. Energia txarra xurgatu duelako da.

Interesik pizten al dute jarduera hauek, zer sumatzen duzu jendearen partetik?

Uste dut geroz eta inters handiagoa dagoela tarotarekiko, bai. Egia da telebistak kalte handia egin dutela, jende askok tarota egiten dudala jakiten duenean esaten duela ‘tarota? Uf, niri ez deus esan!’, beldurrez bezala. Ni ez noa horrela, gaia ateratzen bada edo galdetzen badidate hitz egingen dug, baina bestela ez. Duela hilabete batzuk Tolosan izan nintzen, asteburu esoterikoan, hitzaldi eta ekimen desberdinak antoaltu zituzten, eta eskatu zidaten tarotista bezala ni joateko. Pentsatzen nuen Tolosaldean ez zela jende gehiegi ausartuko, bada, ordu guztiak bete-beteak izan nituen, gelditu gabe egon nintzen, eta jendea gogotsu gelditu zen, batzuk hona etorri dira gerora... uste dut geroz eta interes handiagoa pizten duela guzti honek, bai.

Taroteko kartak, euskaraz ere bai

78 karta ditu tarotak, 22 arkano nagusi eta 56 arkano txiki. Arkano txikiak urreak, kopak, bastoiak eta ezpatak dira, batetik hamarrera, txota, zaldia eta erregea. Baina, tarotean pisurik handiena arkano nagusiek dute. Hauek dira: Zoroa, Magoa, Emakume apaiza, Enperatriza, Enperadorea, Aita Santua, Maiteminduak, Gurdia, Indarra, Ermitaua, Zoriaren Gurpila, Justizia, Urkatua, Heriotza, Epeltasuna, Deabrua, Dorrea, Izarra, Ilargia, Eguzkia, Epaiaketa eta Mundua. “Irudiek ere informazio asko ematen dute, fijatu beharra zara zein posturatan dauden, ze kolore ikusten diren... detaileek garrantzia handia dute”, adierazi du Garmendiak. Tarot mota asko dauden arren,

berak Marseilakoarekin ikasi zuen. Orain, Rider Tarota erabiltzen du. “Kartek informazio asko ematen digute, esaten dute ze aukera dauden, baina gero norbera da erabakitzen duena”, nabarmentzen du.

Berriki, tarot karta sorta berri bat oparitu diotela azaldu du odietarrak, euskaraz: “Aurten, Durangoko Azokarako euskarazko tarot bat atera zuten, eta urtebetez oparitu zidaten”. *Sorginen tarota*. Eta beste emakume ahaldun batzuen izena du karta sortak, eta Ibaizabal argitaletxeak argitaratu du. “Orain kartak ikasi egin beharra ditut, baina zoragarria da, eta ederra euskaraz horrelakoak ere izatea”, dio.





Bertsolariari egin diogu leku

Azkenean, bost urte honetan antzina-gibela ibili ondoren Foru Dekretu baten bidez onartu zuen Nafarroako Gobernuak Merezimenduen dekretua deitua. 97/2024 da Foru Dekretua, urte bat baino gehiago duena

Administrazioko oposizio-lehiaketetan, lekualdatzeetan eta mailaz igotzeko prozesuetan hautagaiak, batez ere, hizkuntzak jakiteagatik zenbateko puntuazioa atera dezaken zehazten da.

Foru Dekretu hori onartu artio, euskara jakiteagatik ematen zitzaion puntuazioak gora egin beharrean behera egin du. Esan nahi baita, makurretik okerrera.

Udal askotan lehiaketetan %10 erainoko puntuazioa ematen zitzaion

lehiaketetan; eta orain %2,1ean gelditu da. Lehen askorik ez, eta orain hutsaren hurrengo.

Euskal jendeoi egin zaigun burla ikaragarria da, beste behin ere.

Hori dela eta, Nafar Gobernuaren aurrean agerraldi bat egin genuen otsailaren 17an.

Merezimenduen Dekretu hori argumentu, makurretik okerrera goazen honetan, Martin Azpirotz etxalekuarrak atera dituen bertsoak dituzu gaurko hauek:

Zaldiko eta astoak

Euskara hizkuntza, hain dotorea,
Munduan badauke xarma.
Saiatzen gera hori mantentzen
Hori da gure afana.
Jarrera ere halaxekoa,
Horretarako azkar lana,
Eskola eta maixuri esker
Eta herritarren auzolana.
Aurrera goaz, ikasleekin,
Eta aurrera da gure plana.
Hau gure izen eta izana,
Baztertuz gure galbana
Urteak pasa egin dire ta
Aldatu da panorama,
Chivite'andreak sartu baitio
Gure euskarari labana.

Zauria ere sakona izanda,
Biotzetan hor malkoa.
Axolkabeak izandu dira
Berriz jarri oztopoa.
Erabakia ez da ona izan,
Egin du atzera saltoa.
Hau zuzentzeko mirari on bat
Apez eta hisopoa.
Borroka hoketan adituak-ta,
Askatuko du zepoa,
Politikan betikoa
Zaldiko eta astoak;
Gure'helburuak jeikiko gaitu
Eta askatu gerrikoa.
Nafar euskerak behar du sua
Eta gu izain gara hauspoak.



Martin Azpirotzen
bertsoa entzuteko

▲ Eguraldi argi batean, mendi elurtuen aitzinean, Martin



Iraizotzen bada indarra



Talde ederra elkartu zen Berueten kopla-kantuan aritzera



Alkotzen otsailaren 7an ospatu zituzten ihoteak



Mapuche erresistentziaren inguruko hitzaldia Aizarotzen



Gazteen I. Podcast lehiaketako teknikoki lanik onenaren saria jaso zuten Ara Lobatok, Enara Alberdik eta Ekhine Ansorenak



Itsasoko ihoteak



Ihote koloretsuak Iraizotzen



Larraitzarko ihoteak



Erasoko Madali Carpintero eta Xabier Iturriotz Zapa, Katalunian oporretan



Zenozko ihoteak



Jauntsarasko ihoteak



Atetz, Herri Txiki Infernu Handi ETB1eko saioan



Berueten ihoteetan



Esan Erran irratiko kolaboraziek jarraitzen dute agerkaria elikatzen

Hilabetero kolaborazio gehiago zintzilikatzen ditugu eta den denak dituzue entzungai. Gainera, aktualitatea, martxoaren 8ra begira jarri da hilabete honetan. Eskualdean antolatu den egitarau zabalaz gain, Gizarte eta Berdintasun Zerbitzuek banatu dituzten irakurketa gida dugu protagonista

Emakume* izateko 60 modu euskarazko liburuen gida

Sakanako, Baztango, Bortziriteako, Malerreka, Larraun aldeko, Leitza aldeko eta Ultzama aldeko berdintasun eta euskara zerbitzuek Emakume* izateko 60 modu izeneko irakurketa-gida kaleratu dute eta ikastetxeetan, udaletxeetan eta Zentro Zibikoan banatu dute. Baina, gainera, amezti.eus gunean aurkituko duzue PDF-an.

Gida deskargatu



Bertan emakumeak protagonista diren liburuak agertzen dira, guztiak euskaraz. Gidan liburu berriak zein klasikoak daude, eta adinaren arabera daude sailkatuta. Generoari dago-konez, era guztietako liburuak daude. Gidaren irudiak Anne Baskaranenak dira. Xedea da berdintasunari lotu-



tako baloreak zabaltzea euskarazko kalitatezko liburuen bidez.

Nerabeak protagonista, zinema kolaborazioan

Jule Goñi erasoarrak gidatzen du Egun Ero magazineko *Spoiler Alert!* zinema kolaborazioa. Hilabete honetan, telesail bat eta bi pelikula ekarri dizkigu. *Samuel*

telesaila berezia izan da lehenengo gomendia, 5 minutu inguruko atalekin, marrazki bizidunetaz osatutako telesaila da Samuel gazte-
txoaren hausnarketak kontatzen dizkiguna, RTVE-n duzue ikusgai, doan. Gainera, bi pelikula: *La receta perfecta* eta *Kneecap* filmak. Biak Filminen, eta azkenekoa gaerlikoz filmatua.



Entzun



Punkak emakume aurpegia du

Kataren Kuir Musika txokoa izan

dugu hilabete honetan ere. Punk musikara bidaia egin dugu berarekin, 70 eta 80. hamarkadetara. Euskal Herriko eta atzerriko emakume taldeak ezagutu ditugu Katari esker.

Entzun





Tainoak eta Zinaida Portnova sobietar partianoa

Memoriaren txokoan bi atal berri aurkituko dituzue, oso bes-telakoak. Azkenekoak Naziek inbaditutako Sobietar Batasunera eramane gaitu, eta Zinaida Portnovaren historia kontatuko digu. 17 urte besterik ez zituela 100 nazi hil zituen sabotaje eta erresistentzia ekintzetan, horietako asko, pozoinduta. Sobietar Batasuneko heroi honen historia entzuteko:

Entzun



Bestetik, 500 urte atzera joan ginen, Espainolek Dominikar Errepublikan, Kuba eta Puerto Rico kolonizatu zuten garaiera. Orduan, Tainoak bizi ziren bertan.

Entzun



Adarra jotzen: bero-bero

Adarra jotzen, oihanetik datorren uhina ingurumen tarte eskaintzen digu Anuetik losu Alfaro ingurumen hezitzaileak. Tenperaturak izugarri igo diren astean izan

genuen berarekin hitzordua eta gaixotasunen hedatzea saihesteko biodibertsitatea zaintzearen garrantziaz hitz egin zigun. Azken urteetan dengea bezalako gaixotasun arraroak iristen ari baitira gurrera, eta kasu gehienetan eltxoek eta antzekoek ekarri dituzte gaixo-

tasun horiek, mundu globalizatuko merkantzien joan-etorrian.

Entzun



Pulunpeko zozketan saria doanik ematen dituzten ostatuak

Eskualdeko ostatu askok doanik eskaintzen dute saria eta hori izugarrizko laguntza da guretzako. Apurka-apurka aterako ditugu guztiak.



Igoako Ostatu

Natividad Kalea, 12
31866 Igoa
621 25 71 85
igoaposada@gmail.com



Udabeke Benta

Bentalde kalea · 31869 Udabe
682 114 982
ventaudabe.com



Berriz ere

Etxalekuko ahuntzaiez

Eta ahuntz kontu gehiago

“Etxalekuko ahuntzaiaz” idatzi nuen azkenekoan eta ez nuen gehiago idazteko asmorik. Dena dela, eskertu beharreko esker oneko adiskideak ez nituen aipatu leku faltaz. Oraingoan aprobeztatuko dut hori egiteko. Eta hortaz landa, beste kontutxoren batzuk ere hona ekarriko dizkizuet, zuek herri hauetako historiaz zerbait ikasteko, *jende probreen*azienda honek han eta hemen arrastoak utzi baititu

Ahuntz saldoa bai, eta akerrak?

Ahuntzak bai, baina non dira akerrak? Hortaz, zerbait esan beharko dugu ba akerraz ere, ahuntzak bezain inportanteak baitira. Akerrik ez bada antxume edo pittikarik ezin izan. Eta herrietan indarrean izaten zuten aker pareak, pentsuz ederki hornituz. Zenbait herri ahuntzaia berak bere etxean izan behar izaten zituen, eta jabe guziek pikor nahikoa ekarri behar izaten zioten ahuntzaieri. Zenbat ahuntz, hainbat almute pentsu. Horrela konpontzen ziren, pentsua ez zedila falta behinik-behin, akerrak bere lana modu onean egin zezan.

Akerra etxean edukitzea ez zen izan oso atsegina, urrina ez baita gozoa alajaina!

Imozko zenbait ahuntzai

Hogeigarren mendean Imotz aldean izan diren ahuntzai askotatik bakarren batzuk aipatuko ditugu.

1902an etorri zen Etxalekura Miel Jose Oskotz Biskarret. Berez Etxalekun jaioa eta ondoren gutxienez ibilbidea honako hau izan zuena: Ihaben-Itsaso-Beramendi-Itsaso eta umeak ere azken bi herri hauetan jaio zitzaizkion, gazteena, Juana ezik, Etxalekun jaio baitzen 1902an.

Dena dela ez dugu jakin zehatz zenbat urtez izan zen ahuntzai, 1910ean oraindik Etxalekun zen, baina laster samar izanen da Oskotza pasatu zela bizitzera, 1913an hil baitzen bertan,

gazterik, 48 urtetan. Honen alarguna eta umeak 1926an Erasoko **Dorreen** ikusiko ditugu.

1920an etorriko zen Miel Elizondo, urte gehienik egin zuen ahuntzaia. Honetaz idatzi nuen aurreko artikuluan.

Ez nuke aipatu gabe utzi nahi Urrietzako Miguel Olaetxea Zubeldia, nahiz berez Latasako **Joanisenean** jaioa izan 1906an. Bai, hau, 13 urtetan edo, ahuntzai bidali zuten Oderitza eta han egon zen 19 urteak bete artio, herriko ahuntz saldo handiaren atzetik. Otorduak etxez-etxe egiten omen zituen, etxe bakoitzean zituzten ahuntzen ariora luzatuz egunak. Eta etxe guzietan jatea oso ongi ematen omen zioten; inor ez agertu nahi zuhur edo zimur, eta, horrela, etxe guzietan bi-

kain janez pasatu zituen urteak gure Mielek.

Urrietzara itzuli zenean, Pastaolako fabrian sartu zen, hipoklorito sodi-koa egiten zuten enpresan, eta jubilatatu artio 42 urtez bertan aritu zen lanean. Etxalekuko ahuntzaia zen Miel Elizondoren alabarekin ezkondu zen, Martinarekin, eta **Arotzenean** bizitu ziren. Orain ere bertan bizi da hauen alaba den Maria Luisa; semea, Jose, aldiz, Irurtzunen bizi izan zen, orain bizpahiru urte hil zen artio.

Oderizko oihaneko hotzak eta euriak osasungarriagoak izan zitzaizkion noski Olaetxeari noizbehinka fabrian izaten zituzten hipoklorito ixuriak baino.

Dena dela, Etxalekuko azken ahuntzaia Martin Elizondo Jauregi izan



Miel Olaetxea eta Martina Elizondo, senar-emazteak, Santurbanen



zen, Mielen semea, baina denbora laburrez, jendea ahuntzak kentzen hasi baitzen, eta ahuntzai ofizioa bukatu zen.

Martin hau Andoaina joan zen lanera eta bertan ezkondu zen. 2006an hil zen 88 urtetan.

Ahuntzai ilustratuak

Ahuntzai izandakoa dugu, berriz, Latasara etorri zen Josefa Barbarena maistra beruetarraren senarra, Rufino Garcia Cajen; eta ahuntzaia, hobeia izan andrea bera baino eskola ematen! Josefak zerbait zuenean, -osasunez ere ez zen oso bizkorra-bere senarrak hartzen zituen eskola-ko eginbeharrak, maistru-lana bere gain hartzen zuen, alegia. Eta ikasleak nahietan egoten omen ziren senarrari noiz tokatuko, izugarri abila izaki gauzak azaltzen. Erasoko bere ikasle bati entzundakoa: *puskez geigo nai giñuen Sr. Rufinok matia eskola.*

Egia esan, ez zen Latasan ahuntzai ibili, hona etorri aurretik lza herrian baizik. Latasan espartzin egile eta merkataria izan zen (denda zuen) 1915ean etorri zen familia hau eta 1933an Iragira pasatu zen (hemen

18 bat urte, alegia).

Auntzaia eta maistraren seme-ala-bak, Garcia-Barberena senideak, inportanteak izan ziren. Horietako bat, Tomas, Salamancako Unibertsitateko errektore eta kanonista famatua, eta hurbilagoa izan duguna, Juan Domingo, Irurtzungo INASA enpresa handiko gerentea urtez anitzez.

Etxalekun, ongi gazterik gainera, izan zen bertako seme bat ahuntzai, Fernando Elizabeitia Alegre, **Miltxoneko** semea, 1919an jaioa. Familia pobre-



Joxe Anjel Astitz, Etxalekuko Marimigeneko nagusia, zaku bat historia eta maindire bat istorio zekiena. Zoritxarrez, guk jaso ez

koa eskolara inoiz bidali ez zutena. Ahuntzai zebilen bitarte horretan leitzen jakin ez eta tirriaturik omen zegoen irakurtzen eta idazten ikasi behar zuela-eta. Baita ikasi ere! Herriko maistruari, Joaquin Eguzkitza Etxarriri, sortzez Ihabengoa zenari, eskatu omen zion zerbait erakusteko. Eta ahuntzen atzetik ibilian ikasi omen zuen irakurtzen eta idazten, herritarrak erabat harrituz.

Borondate handikoa eta ogi puska bezalakoa omen zen Fernando. Gerran ibili beharra tokatu zitzaion eta ondoren tuberkulosia batek eraman zuen, mutiletan, 1952an.

Ahuntzen errestoa nonahi aurkituko duzu

Ahuntzak debekatu.

XVIII. mendearen bigarren erdian Espainiako Itsas Armadak Nafarroako mendialdeko harizti guziak xehatu zituen, arbola hoberen guziak bota eta eraman baitzituen barkuak egiteko. Horrela oihanak soilduz, larre, sastraka eta sasidiz betez. Eta ahuntzak errege, nahiz herri guzietan mintegiak eginez eta haritz eta gaztaina landarea sartuz konpondu nahi izan.

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com



Landareak sartu bai, baina etsaia hurbilean eta hor sortu zen haserrea.

Adibidez, 1781ean Arraratsen ahuntzak debekatu zituzten eta **Zelaiekoak** eta **Marakoak** onartzen ez eta pleitua jarri zien herriak. Honela jartzen du pleituan ahuntzek egiten zituzten kalteez: *aver experimentado q.e descortezaban y acian exzesibo daño las cabras por q.e enteram.te les quitaban a dientte la corteza y mucha parte del ramaje de modo q.e aniquilaban las planttas y se secavan.*

Beste herri askotan ere berdintsu zebiltzan, adibidez, Latasa-Imotzen, 1784. urtean, **Apezenea** eta **Etxeberriazpiko**koak ahuntzak mendian ibili behar, etxalderik hoberenetakoak zirenean; **Etxeberri** behintzat diruz leher izaten zen. Honetan ere herri guzia bi etxaldekoen kontra.

Eta behin aski ez eta 40 urteren buruan ere ahuntzen kontuekin berriz ere, 1824an, hain zuzen.

Esana den bezala, *ahuntzendako ez baita hesirik*. Pareta eta hesiak, denak eskas.

Alde batetikazienda emankorra dugu ahuntza eta, bestetik, fama txarrekoa eta hortaz agertuko zaigu han eta hemen, etxe eta toki izenetan batez ere. Hor ditugu, esate baterako:

Auntzegaña mendi baten izena Itsason edo **Antxumegi** estalpe tiki baten izena Goldaratzen. Egia ote da hemen jendea bizitu zela? Ez dirudi inondik ere, baina Goldarazko zaharrei hala

nien entzuna. 1880an Frantxisko Gamio zen ahuntzaia eta 1901ean Joxe Lasarte, hurrenez hurren 56 eta 62 urteko gizonezkoak.

Eta Ultzama aldera joz, hor ditugu bi ahuntzegi Arraitz-Orkinen, Arraizko **Balentenean** lehena eta Orkingo **Enekonean** bigarrena, eta hala zen, 1726ko katastroan garbi jartzen bai-

Etxe asko ibili zituzten elizondotarrak

Aroztegin Goitikoetxean edo hurbi-lenekoenean bizitu ote ziren gaude. Hemen bost ume sortuko ziren.

Etxalekun ibili zituzten etxeak:

1920an Marijoaneko Goitikoetxean bizi ziren. Etxea hau bota zuten 1960ean.

1930ean Dorrotoko baltegia bizi ziren.

1933an Eskolazarrean.

1942an Ernatonean.

Oskotzen ibili zituzten etxeak:

Lehen aldian, 1915-1919 artean, Urztutegian.

Bigarren aldian:

1948an Etxalekutik Oskotza joanen ziren, Juantxinera.

1951n Gartzinean jarriko ziren bizitzten, oker handirik ez badugu.

1960 eta 1961an hil ziren Gartzinean Margarita eta Miguel, hurrenez hurren.

tu. **Abauntz** dermio famatua ere bertan da, eta ahuntz hitzarekin ez ote du ikustekorik?

Auzan ere ikusi ahal izan dugu mais-tartoki baten izena: Ahuntzategia

Eta bukatzeko eta gauzak ez sobera luzatzeko, hona etxalde baten izenean txertatua ahuntza, Lantzen. Bertan dugu Udaletxe (**Jontzarnea**) gainera aldean **Auntzenea**, **Aunzayarena** 1726ko Katastroan.

Eta honekin guziarekin bukaera emanen diogu **ahuntza jokatu** esaldi bizkorrekin, musean edo pilotan erabiltzen dena oraindik, esan nahi baita, azkena jokatzeari, ahuntza jokatzea eta galtzea izanen baitzen garai batean azken porrota edo irabazia izatea. Arre edo iso, eta iso egin behar noizbait!



Txurdan

Lagundu didaten guziak aipatu gabe ezin utzi:

Jose Angel Astiz Urritza, Etxalekuko **Marimigelenekoa** (1918-2010).

Juan Erbiti Aldaregia, Etxalekuko **Zapatiñenekoa** (1936... luze bedi bizia osasunez).

Maria Luisa Olaetxea Elizondo (1947) Urritzako **Arotzenekoa**.

Margarita Ollakarizketa Elizondo, Etxeberri herrikoa, Miel Elizondo bere aita-txiren fotografiak utzi dizkidana.

Hiztegia

Antxumea=pittika: cabrito.

Almuteda: almud (alea neurtzeko neurri bat).

Zehatz: detallado, exacto.

Izal herria: euskaraz Itzalle da eta Gallues (Galoze) ko kontzejua da.

Tirriatu: ansiar, anhelar.

Adibidez: por ejemplo.

Diruz leher: diruz beteak. Oinez leher: oinez akiturik, eta horrelako mila.



Latasako minttegiaren pareta
porrokatuak ageri dira pago artean

Erakutsi eta ikasi

Gizakiaren egin beharra jaiotzetik beretik. Baita animaliena ere, sortzetik beretik hasten dira ikasten beren ama eta kideengandik. Baina, adibidez, zakur ar eta emeen artean ez dut sumatu sortu duten umealdiz eztabaidarik. Kontent dira kumeez

Gizakiaren arrazan beti izan da eztabaida, gutxi edo gehiago, nola erakutsi edo nola ez erakutsi; ama utziegia dela, aitzak berriz zorrotzegi hartzen dituela haurrak... Hori beti ezagutu izan dut, baina joan den 50 urtean, ustez, frankoz gehiago. Eta azken 20 urte honetan, urak arras handitu eta uhertu dira. Izugarri, gehiegi, jende asko aspertzeraingo eta beren eginkizuna gorrotatzeraino gainera. Mundu guzia aritzen gara irakaskuntzaz hizketan. Ikasleak ez dakit nongo zeruetan daudela, irakasleak ere erakusteko nahi bizi hura galdu ote duten... eta zer esan gurasoez? Oi, oi, ba ote dakite zertan dabilzan? Kritika handik eta hemendik. Eta kritikak elkarri. Kritika eta eztabaida bai, baina **autokritika** batzuen eta besteengandik sumatu ahal duzu inoiz? Autokritika? Ba ote dakigu autokritika zer den ere? Zein zaila den hau gaurko gizartean! Zein zaila den talde, gizatalde, herri eta nazioetan!!!

Orain bi urte edo EAEko (Euskal Autonomi Elkargoa) irakasteendako konkurtso bat atera zen, urte anda-

na bat egin gabe zegoena. 15 urte, edo 20, beharbada. Eta horrela ikasle anitz zegoen lanean ez egonkor, behin-behinean, aurtan hemen eta hurrengo urtean beste puntan... ilusioa bera ere galduz. Kontua da, finko zeudenak lasai zeudela probisionalki zeuden horiekiko atxikimendu handirik erakutsi gabe, eta maistra batek idatzi zuen, oso-oso mindurik horiekin, eta honako hau bota zien:

“Erakutsi duzuen elkartasuna zero eta laguntasuna, berriz, etsaien pare”

Eta idatziaren bigarren partean maisu-maistra gazte ez-egonkorak irakaskuntzara ekarri dituzten ondasunak aipatzen zituen. Eta honako hiru hauek azaltzen zituen:

- Ingeles goiztiarra
- Digitalizazioa
- Metodo berriak

Alajaina, ez da gutxi! Izugarri dela esanen nuke, aldaketa handiak ekarri dituztela, alegia. Hiru alor horiek onerako baldin badira ikaragarritzko urratsak eman ditugu.

Pentsatu beharko nuke, horiek denak nonbait behar bezala probatu eta balioztatu ondoren ekarri dituztela. Hala beharko luke. Nahi eta nahiezko kontua da hau.

Baina, ai, ai, ai, nire sinesmena galduxe dut aspaldi samar. Berrikuntza bakoitzaren aurrean, buruko osasunaren onetan, berrikeria ez ote den pentsatzen dut lehenik. Eta gehiegitan berrikuntza berrikeria atera zaigu. Niri behintzat hala suertatu izan zait.

Ardo frexkoa (betikoa) bezalako edaririk ez dugu, fantari ttikitan edateari utzi nion. Fantak fantasia dakarkit burura. Eta pantasia ere bai.



Txurdan

Hiztegia

Urak handitu: errekek gainezka egin.

Urak uhertu: urak zikindu, lohitu.

Irakaskuntza: enñanza.

Autokritika: norbaitek bere buruari edo lanari egiten dion kritika.

Andana: purrusta, taldetxoa.

Egonkor: estable. **Ez egonkor:** provisional.

Atxikimendua: adhesión.

Balioztatu: validar.

Berrikuntza: innovación.

Pantasia: ustea. “Ez izan eta bai uste” esaldia aski dugu jakiteko zer den pantasia.



Bianako Printzea institutua



Badatoz Korrika eta martxoaren 8a!

Martxoan kultur programazioa markatzen duten bi ekimen daude: alde batetik Korrika dugu eta bestetik martxoaren 8a, beraz, hilabete honetan programazioak zerikusi handia izanen du euskararekin eta feminismoarekin

Hilabeteko erakusketa aipatzen hasiko gara: **Josturak paisaia hauskor baterako**, Ana Blanco Ansoarenarena. Hau da egileak berak kontzaten diguna: "Arte bisualak, lurraldea eta gizarte-kontzientzia batzen dituen ikuspegi bat eraikitzen dut. Nire lanak gogorazten digu argazkilaritza zaintza ekintza bat izan daitekeela: paisaiarekiko, memoriarekiko eta hura eusten duten bizitza guztienekiko. Natura, ekologia, feminismoa, desberdintasuna, lurraldea... irudiek gai hauek sentikortasunez eta konbentzimenduz aztertzen dituzte".

KORRIKA KULTURALA

Hileko lehen ostiralean izan dugun Korrika Kulturalaren lehen ekitaldia,



MARGOLARI

Martxoaren 13an bakarriketa bat izango dugu Larraintzarko Bentan berriro (Gizarte Etxea), Manex Astigarragarekin. Manex aspaldi egon zen gurekin, barre asko egin genuen bere umore absurdo eta azkarrarekin, eta orain "Margolari" bakarriketarekin itzuliko da: "Bi urte luzez landu eta detailearekiko obsesioz eraikitako lana da MARGOLARI. Bertan, pertsona zein animaliei izenak jartzeko duen gaitasuna aitzakia hartuz, irudi surrealistikak, satira soziala eta azeitunak uztartuko ditu Astigarragak. Umore absurdotik beltzera jauzika, bere ametsik sakonena aitortzeraino. Txandala, gaizki abestea, gaztelerazko esaldiren bat... egungo modako euskal kultura, azken finean."



KAKA antzezlan, ziur ezagutzen duzuela, oso antzezlan arrakastatsua izaten ari delako eta bere abiapunta oso deigarria delako (kaka erraldoi bat agertzen da herriko plaza batean), baina, badaezpada ere, gogora dezagun antzezlanaren sinopsia:

"Euskal kulturaren oholtzan, kaka-mokordo bat agertu da. Kaka azaleratu da eta egoeraren analisia egin behar da. Nork egin du? Noiztik dago hor? Zer irudikatzen du? Eta orain, zer egin kaka honekin? Norren ardura da? Nori tokatzen zaio marroi hau argitzea? Garbitzea?...

Martxoaren 6an izan da.





SOINU IPUINAK ETA BERTSO-MERIENDA

Hurrengo ostiralean, martxoaren 20an, txikien txanda izango da:

Soinu ipuinak ikuskizuna izanen da, Prospero Teatroyen eskutik. Bi narratzaileek irudimenez beteriko munduetara bidaiatzera gonbidatzen gaituzte. Ahots batek istorioei bizia ematen dien bitartean, besteak soinuekin eta zuzeneko musikarekin laguntzen die. Umorearen bidez gure beldurrekin jolasten diren eta aurrez aurre begiratzen laguntzen diguten bi ipuin. Entzuteko, barrre egiteko eta irudimenari hegan egiten uzteko hitzen eta soinuen ikuskizuna. Adi ordutegiari, egun horretan pixka bat aurreratu egingen dugulako: 18:00etan izanen da, Gizarte Etxean.

Eta horrela iritsi gara ostiral kulturaletako azkeneko ekimenara, martxoaren 8arekin lotua izanen dena: bertso merienda **Maialen Lujanbio eta Nerea Ibarzabalekin** (agian gaur gaurkoz izan ahal dugun bertso saio hoberenetako bat, hoberena ez esateagatik). Martxoaren 27an izanen da, 19:00etan, Gizarte Etxeko tabernan.

 Patxi Irurzun



Hilabeteko liburua: CARCOMA

Hilabetero lege, tarte bat hartuko dugu liburutegiko liburu bat gomendatzeko: oraingo honetan, Layla Martinezen **Carcoma** eleberria da. Liburu honek 60 edizio baino gehiago ditu eta 15 hizkuntzatara itzuli da, oso gomendagarria da. Beldurrezko generoaren edo eleberri gotikoa-ren barruan koka dezakegun istorioa da: Mariana Enriquez edo Monica Ojeda bezalako egileak gogorarazten ditu (hala ere, liburua eleberri gotiko edo fantastiko bat baino askoz gehiago da, izan ere, elementu horiek bigarren plano batean daude). Amona baten eta haren bilobaren bizitza kontatzen du, herriaren mespretxuak markatuta. Biak etxe itogarri batean bizi dira, itzalez, mamuz eta gorrotoz inguratuta. Etxea da liburuko beste protagonista bat. Indarkeria patriarkala, pobrezia eta mendekua jorratzen ditu, besteak beste, liburuak.





“Guk jotzen dugun musikan mezua da garrantzitsuena”

Ultzamako eta Basaburuko bost gaztek sortutako punk taldea da Oihuka, eta Irati Sarrias Ripodas Ziaurrizko kazetaritza ikasleak elkarriketa egin die haien jardunaren inguruan



▲ Julen, Ekaitz, Mattin, Haitz eta Markel, Oihuka taldeko kideak

Oihuka 2025eko urrian sortutako punk taldea da, *Dinamita*, *La Polla Records*, *Non Servium*, eta askoz talde gehiagoren kantak jo izan dituen Lizason, Leitzan eta Lakuntzan, besteak beste. Ultzamako eta Basaburuko bost gazte igotzen dira oholtzara: Ekaitz Ariztegi (bateria), Julen Bengoetxea (gitarra), Mattin Etxarri (abeslaria), Markel Hendriks (bajua) eta Haitz Mariezkurrena (gitarra). Taldearen lehen hilabeteeetatik hasi eta etorkizunera begira dituzten erronketaraino hitz egiteko eseri dira gurekin.

Etxean bakarrik musika jotzetik jendearentzat jotzera pauso handia dago. Nondik etorri zen musika taldea sortzeko lehendabiziko ideia?

Markel Hendriks: Egun batean, apirilean edo, Ekaitz eta biok mugikorretik hitz egiten ari ginen eta talde bat egitea adostu genuen. Biok bateria jotzen genuen eta nire aitak baxua jotzen duenez, ni ere horretan hastea erabaki nuen. Beste gitarra bat behar genuen eta Haitzi esan genion. Baietz esan zuen eta entseguen hasi ginen.

“Gure kontzertuetako giroa ‘gaztetxeroa’ izaten da normalean”

Aurretik pentsatu al zenuten noiz-bait musika talde bat egitea?

Mattin Etxarri: Bai zera! Haitzekin hitz egin nuen behin festa batean eta entsegu batera joan nintzen probatzera, baina, egia esan, ez zen oso ongi joan.

Behin taldea sortuta, argi izan zenuten hasieratik zer musika estilo jorratuko zenuten eta zein izango zen taldearen nortasuna? Nola erabaki zenuten hori?

Ekaitz Ariztegi: Gehiegi pentsatu gabe izan zen, kantak aukeratzen hasi ginen eta azkenean taldearen norabidea musika estilo zehatz batetik joan zen.

Zein talde, musikari edo pertsona dira zuentzat erreferenteak musikarengatik, mezuarengatik edo ibilbidearengatik?

Haitz Mariezkurrena: Gaur egun jotzen dugun musika *Streetwise* eta



Dinamita taldeen gisako estilokoa da eta saiatzen gara antzeko gauzak egiten. Gerora sortuko dugun musika ez da izanen *La Polla Records*ena bezain prekariora, hau da, saiatuko gara beste kutsu bat ematen.

Orain arte sei kontzertu eman dituzue, zein izan da gehien gustatu zaizuena eta zergatik?

Ariztegi: Lakuntzan eta Altsasun oso giro ona egon zen eta jendea nahiko animatua zegoen.

Mariezkurrena: Lizasokoa izanzen zen agian jende gehien etorri zen kontzertua, baina soinua oso txarra izan zen.

Zenbat diru kobratu izan duzue, baduzue prezio zehatz bat? Doanik eman ahal duzue kontzerturen bat, edo edariaren eta afariaren truke?

Etxarri: Normalean kontratatzen gaituztenek erabakitzen dute zenbat ordaindu. Afaria eta edaria ere ematen dizkigute, baina guk ez dugu zehazten diru kopuru bat, ez gara oso zorrotz jartzen horretan.

Nolakoa da zuen kontzertuetan sortzen den giroa? Uste duzue mundu guztiarentzat egokia dela?

Mariezkurrena: Giroa "gastetxeroa" da, hau da, ematen ditugun kontzertuak ikustera etortzen direnak ez dira musikari onak entzutera etortzen, parranda eta zuzeneko musika dagoela dakitelako datoz.

Zein kanta joko zenukete zuen bu- r- r- a aurkezteko?

Etxarri: Kortaturen "Mierda de Ciudad", dudarik gabe, beti kontzertuen bukaeran jotzen duguna da.

Jotzen dituzuen kanten mezuek karga politiko eta ideologiko handia dutela esan daiteke, zuek gazte musikariak izanik zilegi ikusten duzue sorkuntza gauzatzerakoan politikoki ez aldarrikatzea?

Mariezkurrena: Guk jotzen dugunak ez du balorerik edo oso balore gutxi du musikalki, azkenean, mezua da garrantzitsuena. *La Polla Records* ez zen ezaguna egin onak zirelako, baizik eta abestietan esaten zutenarengatik. Beraz, guk ere uste dugu horrelako musika jotzen badugu

merezi duela zerbait esateko edo helarazteko erabiltzea.

Euskaldunak izanda, uste duzue hizkuntzarekiko ardura duzuela musika berria sortzerako orduan?

Mariezkurrena: Nik uste dut euskaldunak izanda musika baliatu beharko genukeela dugun hizkuntza erabiltzeko, dudarik gabe.

Etorkizunera begira, zeintzuk dira dituzuen proiektuak edo erronkak? Musika propioa sortzen hasi zarete?

Mariezkurrena: Orain hasi gara, baina momentuz ez goaz oso aurreratuta, orain dela hilabete erdira arte egon baikara ia bi astero kontzerturen bat ematen, gutxi gorabehera. Gainera, hasiberriak garenez ez dugu denbora askorik izan gauza berriak sortzeko, denbora guztia entseguetan sartu dugulako. Izan ere, zuzeneko kontzertuetan itxura ona ematea oso garrantzitsua iruditzen zaigu.

Nola konbentzituko zenukete z- a- l- a- t- z- a duen norbait Oihuka taldea herriko jaietara eramateko?

Mariezkurrena: Giro ona sortzen dugu eta jendea mugitzen duen taldea gara. Badugu gure fan talde txikia, atzetik datorrena, beraz, giro polita izango dela dudarik gabe eta merkeak garela esango nuke norbait konbentzitzeko.

Azkenik, non eta noiz izango da zuen hurrengo kontzertua?

Mariezkurrena: Lekunberrin izango da hurrengoa, irailaren hasieran egiten den *Matarock* izeneko festan. Oraindik ez dugu udarako ezer ez itxi, baina jotzeko asmoa badugu.



▲ Oihuka taldea, kontzertu batean



Irati Sarrias Ripodas



Aingeru Eleta Urteaga iraizoztarraren lehenengo pausuak

Kameraria eta Argazki zuzendaria da Aingeru Eleta Urteaga iraizoztarra. 23 urterekin, ekainean amaitu zuen masterra eta lehenengo pausuak ematen ari da zinema munduan. Madrilen ikasi du bi urteko diplomatura eta urtebeteko Argazki zuzendaritza masterra, TAI eskolan. Han bizi da Arañozpe etxeko semea, baina Nafarrora maiz etortzen da

Aingeru Eleta Urteaga gaztetxotik erantzun dio betidanik izan duen arte zaletasun horri. Galdetuta, alderdi hori amarengatik dator kiola uste du berak ere, zurarekin eskulturak egiten ditu Ana Urteagak: "Amak beti esaten du nik bere geneak hartu ditudala eta arrebak aitarenak (irriak). Izeba Txarik ere alde artistikotik jo du" -Txari Eleta, Esan Erran irratiko lehenengo esataria izan zen eta musikaria ere bada, besteak beste-.


Horrela, Aingeru Eletak Batxilergo Artistikoa ikasi zuen eta, orduan, marrazkilaritza gustatzen zitzaion bereziki, ilustratzailea izan nahi zuelako. Ondoren, Lanbide Heziketan sartzea erabaki zuen baina ikus-entzunezko Grafikako graduari: "Zinema asko gustatzen zitzaidan baina eskurazina ikusten nuen. Bestetik, pentsatu nuen: "zergatik ez?".

Argazki zuzendaria: irudiaren magia

Argazki zuzendaria izateko masterra ikasi du Eletak, nahiz eta hasieran zuzendaria izateko asmoarekin joan zen. Irudiak narrazioari nola lagundu diezaiokeen da gehien interesatzen zaiona: "Zuzendariak kamerariak eta argazki zuzendariak egiten dituzten gauza batzuk egiten zituztela uste nuen, hain zuzen niri gustatzen zitzaizkidanak. Horrek eraman ninduen espezialitate hori

hautatzera. Argazki zuzendaria da pantailan ikusten duzun irudiaren arduraduna. Zuzendariak narrazioaren eta planoen inguruko erabakiak hartzen ditu gehien bat. Narrazioa edo historia nola indartu eta nola atera probetxu gehiena irudiari, hori argazki zuzendariaren zeregina da, teknikoki eta artistikoki irudiari egin diezaiokeen ekarpena. Zuzendariak ere pentsatzen du iru-

“ Zinema asko gustatzen zitzaidan baina eskurazina ikusten nuen ”



'Kontxi' amonarekin NIFFeko saria jaso ondoren



dian, jakina, baina argazki zuzendariak ematen dio indar guztia argiari eta kamararen optikei”.

Hala ere, Madrilén ikasi du zuzendariaren eta argazki zuzendariaren arteko elkarrizketa zein garrantzitsua den ere. Argazki zuzendariak, beste departamentuetako buruek bezala, argi izan behar du zer da bilatzen dena, eta hori guztia filmatzen hasi aurretik adostu behar da, grabaketa ahalik eta hobekien joateko. Eletak aurretiko prozesu horretan disfrutatzen ikasi du: “Erabaki asko bien arteko elkarrizketetan hartzen dira. Hala ere, lan egiteko modu ezberdina daude, zuzendariaren arabera, argazki zuzendariak erabakitzeke gaitasun gehiago edo gutxiago izan dezake”.

Zinema: talde esperientzia

Aingeru Eletarendako talde esperientzia bat da zinema, bai lanean, baita ikuslegoaren ikuspuntutik ere, eta hori da lanbide honi lotzen dion arrazoi nagusia: “Zinemagintzak gustatzen zaidan guztia uztartzen du. Historiak kontatzea, argazkilaritza, irudia, musika, hori alde artistikoari dagokionez. Baina gehien-gehien gustatzen zaidana talde sentimendua da. Bai zinema areto batean sortzen dena, denok elkarrekin zerbait ikustean. Baita filmaketa batean taldean lanean sortzen dena ere. Izugarri gustatuko litzaidake Iraizotzen zerbait grabatu eta bertan, plazan, proiektatzea, adibidez. Herritar guztiok eta Ultzamako nahi duen beste edonor ikustera hurbiltzea eta plaza betetzea. Izugarri hunkituko ninduen”.

Bestetik, bidaiatzeko eta tokiak eza-gutzeko aukera ematen dion lana dela atsegin du: “Egunero guztiz ezberdina da, egunero aldatzen duzu bulegoa, ia tokirik ez den etxe izugarri txiki bat izan daiteke bulego

“
**Egunero
aldatzen duzu
bulegoa**
”

hori edo gaztelu bat! -Inoiz ez dut gaztelu batean filmatu baina oxala!”.

Familiaren babesa, ezinbestekoa

Nabari da zinemagintza dela Eletaren pasioa, baina onartzen digunez, ez da lanbiderik errazena eta gurasoekin betirako eskertua egonen dela esan digu: “Nik izugarrizko zortea izan dut eta horretaz oso konziente izaten saiatzen naiz. Eskolak garestiak izaten dira eta mundu guztiak ezin du ordaindu. Nik gurasoekin izan dudana zortea azpimarratu nahi dut, beti lagundu eta babestu naute. Ibilbide artistikoak, tamalez, zaila dira aurrera eramaten eta faktore oso garrantzitsua da laguntza eta babesa hori.



Aingeru Eleta, kamerarekin

Nik izan dut. Gainera, estigmatizatu dauden ibilbideak dira ez delako lanik egonkorrena ezta lan irteera gehien dituen ere”. Lana bilatzera-koan, harremanak ere giltzarri dira: “Kontaktuetan asko oinarritzen den mundu bat da. Askotan dei baten esperoan egon behar duzu. Hori guztia argi izan behar duzu ikasten hasten zarenean eta lanean hasi nahi duzunean, bestela kolpe handia hartu dezakezu”.

Bestetik, giroa zaintzea bereziki garrantzitsua da: “Nik uste dut edozein arlo artistikoak duela hori. Ego handia eta inbidia asko dago zinemaren mundu honetan. Edozein lanetan bezala bulegoan oso ongi eramaten ez zaren norbaitekin tokatzen ahal zaizu, baina filmatze gune batean bereziki gogorra dela uste dut. Ongi doan filmazio bat zoragarria da baina giro txarra dagoen errodaje bat ez diot inori opa, oso gogorra delako. Talde lana da eta, aldi berean, hierarkikoa, onerako eta txarrerako”.

Zinemagintzaren aldeko apostua, Nafarroan

Ikasten hasi zenean, Madrilera, zinemagintzaren epizentrora jotzea erabaki zuen. Orain, zerbait aldatzen ari dela sumatu du: “Ikasketak amaituta, hemen gelditu naiz lana bilatzeko asmoz. Baina kurioa da orain gertatzen ari dena. Alde egin nuenean ez bezala, orain Nafarroan zinemaren aldeko apostu indartsua egiten ari da. Euskal Herriko beste herrialdeetan aurretik ere mugitzen zen zerbait baina Nafarroan duela gutxi hasi dira. Pelikula, laburmetrai eta gauza asko grabatzen ari dira. Orain pena ematen dit, zerbait galtzen ari naizenaren sentsazioa baitut. Horregatik, Iraizotzen pasako dut uda, hango proiektuetan parte hartzeko asmoz. Naizen tokiko industriara gerturatzea interesatzen zait”.




Lanak

Kontxi: Maria Concepción Villabona Mezquiriz amonari egindako omenaldia

Dokumental bat egin nahi zuen, duela gutxi galdu zuen aitonaaren memoriaren ingurukoa eta amonaren erretratu bat: “Ez nekien oso ongi nondik joko nuen baina Nafarroa joaten nintzenean amona grabatzea gustatzen zitzaidan. Elkarriketa bat egin nion eta planoak eta irudi asko hartu nituen. Orduan, NIFF-ek laburmetrai ikastaro bat eskaintzen zuen (Navarra International Film Festival edo Nafarroako Nazioarteko Filme Jaialdia) eta jaialdiko gazte atalean aurkezteko aukera zegoen. Gehienez hiru minutuko laburmetraiak izan behar ziren. Momentu horretan *Kontxi* dokumentala zena aurkeztu nahi nuen baina luzeegia zen eta gainera muntaiarekin ez nengoen pozik”. Ikastaroaren ondoren Madrilera itzuli zen eta materiala begiratzen hasi zen. Hasieratik buruan zuen historiatik aldendu eta beste gauza bat egiten hasi zen: “Plano bat nuen, proba moduan egin nuena, amonaren etxean, Olaguen. Amona eta ni agertzen ginen argazki baten errekreazioa zen, baina hutsik. Argazkia bera eta errekreazioa muntatu nituen modu batean non amona eta ni desagertzen gara eta gaur egungo espazioa hutsik agertzen den”. Gero amonarekin telefonoz izandako dei baten hitzak erantsi zizkion: “Polita gelditu da, egia esanda, eta jendeak atsegin izan du”.

NIFFeko gazte saria ere irabazi zuen eta hainbat jaialditara eraman du: “Baina saria baino gehiago nire amonak proiektzioa ikusi izana da pozten nauena. Ni saria hartzen eta berari eskaintzen ikustea eta nire mundua berarekin partekatu ahal izana, hori da harro jartzen nauena. Bata bestearen ondoan ikusi genuen laburmetraia, pantaila handian, hori da politena. Zinema esperientzia kolektibo bat da eta ez dago modu hoberik zure familiarekin eta



Kontxi laburmetrai sarituaren irudi bat ▲

“

Saria baino gehiago nire amonak proiektzioa eta ni saria hartzen eta berari eskaintzen ikusi izanak pozten nau

”

maite duzun jendearekin partekatzea baino. Proiektzioa bukatu zenean jendeak amona ezagutu zuen eta agurtu zuen eta hori ere polita izan zen. Bera da laburmetraiaren arima; ni, berriz, dei bat egiten duena, besterik ez. Laburmetraia, gainera, zahartzearen bakartasunaz hitz egiten du, maitatzen dituzunak bere bidea hartzen dute, badoaz beste toki batzuetara, nire amonak gainera duela gutxi galdu zuen senarra, nire aitona. Aiton-amonekin denbora gutxi dugula eta aprobetxatu behar dugula da mezua”.

Estreinatutako azken lana: *Jauria*

Hako eta Marqués bi sikario dira eta auzoko bandakide zahar baten pisuan oldarka sartu dira zor bat kobratzeko asmoz. Hori da laburmetraiaren abiapuntua. “Kamera laguntzaile gisa aritu nintzen eta oso esperientzia polita izan zen. Klaketaren mutila izan nintzen (irriak). Bost egunez grabatu genuen, Cascanten, abandonatutako eskola batean. Aitana Argazki Zuzendariarekin oso eskertua nago nirekin kontatu izanagatik. Oso giro ona izan genuen filmaketa horretan eta horrekin gelditzen naiz. Eta ezagutu nuen jende guztiarekin, gehiengoa nafarrak ginen”. Iruñean estreinatu dute, otsailaren 26an.



Orain: *Piso en Madrid*

Lan berri bat filmatzen hasi da orain, Madrilén. Argazki zuzendaria izanen da, taldeko burua, beraz: “Bikote baten historia kontatzen du. Pisua bilatzen ari dira Madrilén eta bilatzen ari diren bitartean haien arteko harremana itzaltzen joanen da. Dramedia bat da, hau da, umore ukituak dituen drama bat”.



Nekazaritzari eta elikadurari lotutako saio irekiak

Otsailean zehar hainbat saio ireki egin antolatu ditu Cederna Garalurreko Elikadura Dinamizatzaileak, elikadurari lotuta elkartean lantzen ari diren proiektu eta ekintzen berri emateko eta ekoizpenean ari direnen edo aritu nahiko luketen horien beharrak eta proposamenak jasotzeko



Nekazaritza sektorean lanean ez hasteko arrazoi ugari egoten ahal dira baina zein da gure eskualdeko errealitatea? Ba al dago lehen sektorean aritu nahi duenik baina zailtasunen ondorioz lortu ezinik dabilenik? Zein dira horretan ari zaretenok dituzuen erronkak? Zertan izan ahal zaizue lagungarri tokiko elikadura sistemaren inguruan egiten ari garen lanketa? Zein formakuntza beharra duzue? Zerk lagundu ahal dizue ekoizten duzuen eskualdean bertan saltzen? Galdera horiekg uztia luza ezkiote Cederna Garalurretik eskualde zabaleko herritarrei, eta bereziki lehen sektorean ari direnei edo ari nahiko luketenei.

Badira urte batzuk Nafarroako Mendialdean eta Bertizarana-Bortzirak-Malerrekan tokiko elikadu-

ra sistema indartu nahian lanean ari direla, udalek bultzatuta eta Cederna Garalur Tokiko Ekintza Taldearekin kolaborazioan. Elikagai ekoizpena tokiko elikadura sistemen oinarria da, eta adierazi dutenez, hain zuzen arlo horretan dituzte erronka handienak.

Ekoizpenik gabe zaila da tokiko elikadura sistemak egituratzea eta indartzea, eta elikagai ekoizpenari bultzada emateko asmoz egin dituzte hainbat bilera ireki Mendialdeko bailaretan. Gurean, Etxalekun izan zuten hitzordua herritarrek, otsailaren 14an. Alde batetik, orain arte elikaduraren eta nekazaritzaren alorrean egin duten lana eta abian dituzten ekimenak aurkeztu zituzten, eta bestetik, profesionalki lan egiteko nahiz etxerako, sektorean ari diren nahi sartu nahiko lukete-

nen egoera, interesa eta beharrak jaso zituzten.

2026an ere Mendialdeko Azoka Ibiltaria

Mendialdea Elikadura proiektutik bultzatu diren ekimenen artean, nagusietakoa Plazaola Partzergoarekin eta eskualdeko udalekin batera antolatzen duten Mendialdeko Azoka Ibiltaria da. Aurtengoa 7. edizioa izango da eta 5 herrietan egiteko asmoa dute, apiriletik hasi eta urrira bitarte.

Gure eskualdean, Imotzen ospatuko da ziurrenik aurtengo azoka ibiltaria, eta aurreko urteetan bezala tokiko ekintzaren batekin lotzen saiatuko dira. Imotzen, printzipioz, xenden egunarekin batera antolatzeari aurreikusten dute.



Jaiotzak, ezkontzak
eta heriotzak

2026ko urtarrila

2026ko urtarrilan gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

2026ko lehen ilean inor jaio denik ez dugu jakin.

Ezkontzak:

Inor ezkondu denik ere ez.

Heriotzak:

BASABURUA Beruete

Esther Arano Betelu, **Errekaldeko** etxe-koandrea, ilbeltzaren 15ean hil zen 83 urtetan.

ULTZAMA Alkotz

Julio Indaberea Osinaga, **Joaneko** nagusia, ilbeltzaren 11an hil zen 78 urtetan.

Maria Trinidad Balda Erbiti, **Baldan etxe-ko** etxe-koandrea, ilbeltzaren 22an hil zen 86 urtetan.



▲ Esther Arano

“Beti izanen
zaitugu
gogoan”



▲ Maria Trinidad

Zorionak Zorionak!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Zorionak Eneko, 9 urte!



Zorionak Rufintxo!



Ametzaren txokoa

Helbide elektroniko berriak

Azken denboraldiko sare sozialen eta beren nagusien portaeren eraginez, domeinu propioa duen posta erabiltzea erabaki da.

Gure helbide elektroniko pertsonalizatua izateak, elkartearen izena islatzeaz gain, irudi fidagarriagoa eta sendoagoa emanen dio, inguru profesionalean nola gure bazkideen aurrean.

Gure domeinua **ametza.eus** izaten jarraituko du eta posta helbideak hauek izanen dira:



pulunpe@ametza.eus
esanerran@ametza.eus
amezti@ametza.eus
publi@ametza.eus
bazkideak@ametza.eus
ametza@ametza.eus

Aldizkariaren gaietarako
Irratiaren gaietarako
Agerkari digitalaren gaietarako
Publizitate gaietarako
Bazkideen mezuendako
Elkartearen gaietarako

Gure domeinua denez, helbide elektronikoaren eta erlazionatutako datuen gaineko erabateko kontrola dugu, kentzeko eta gehitzeko ematen duen malgutasunarekin.

Aldi berean gure elkartearen interneteko presentzia indartzea ekarriko digu eta sendotasunez agertzea. Baina, batez ere, konfiantza handiagoa eragingo du: gure ingurukoekin, bazkideekin, irakurleekin, entzuleekin... bere informazioa noren eskuan dagoen jakitearekin.

GOTELET-A
KENTZEA

FATXADAK
ZAHARBERRITZEA

IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)

DAVID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

KALITATEA
ETA
GARBITASUNA

AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com

Eskatu **Nafarroa erdi eta hegoaldeko** oliba-olio
birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta
lekaleak **euskaraz etiketatuta eta**
jatorrizko prezioan



ESKUTIK ESKURA EGITEN DUGU HERRIA

errigora.eus

otsailak 26-martxoak 18